

EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXV SAN SEBASTIÁN 30 DE SEPTIEMBRE DE 1911 N.º 1041



MARQUÉS DE VALDE-ESPINA

MARQUÉS DE VALDE-ESPINA

GIPUZKOA-ko Diputazio chit goitua-ren buru daukagu aurten, Jose Orbe eta Gaytan de Ayala jauna, *marqués de Valde-Espina*-ren izen omengarriakin apaindua dagona.

Ondo esaguna da markesa gure artian, baita ere bere aurrekuak, Gipuzkoa-n eta Euskal-erri guziko jaunetan, ots aundi eta ospatsuenetakoak izan diralako

Noiztik agertzen diran Gipuzkoa-n Orbe-tarrak ez da erreña somatzen, bada beti esagutu dira gipuzkoar goituenetakoen artian.

1390^{-garren} urtian badakigu Bergara-n bizi zala Orbe-tar Garzia Martinez, eta geroztikakoak ondo esagunak izan dira beren jakinduri etaprestutasuna-gatik.

Bizkaya-n, Ermua-ko errian, jayo zan 1672^{-garren} urtian Andres Orbe eta Larreategi, gero apaiz egin eta Barzelona eta Balenzia-Lo apezpiku izan zana.

Gañera egon zan Kastilla-ko Kontzejuko buru, inkisidore nagusi, eta Nuntzio jaunaren ordeko.

Felipe bostgarren erregiak, jaun arren egipen aundiak ikusirik, saritu nai izan zuben, doaizturik, illobentzat eta aben ondorenguentzat *marqués de Valde-Espina*-ren izen omengarriakin.

Jaun aundi arren illoba, izen berekua zan: Andres, bere osaba bezela, eta gañera Agustin. Andres Agustin Orbe eta Zarauz, eta izan zan *Valde-Espina*-ko lenbiziko markesa.


Andres Agustin jauna, eskondu zan Teresa Murgia eta Arbelaizekin, eta eskontza onen bitartez Orbe tarretara irichi zan Murgia izen-datzen dan Astigarraga-ko aide nagusiyen Jauregia.

Zer izen eman dion jauregi onek Orbe-tarrai, esagutuba dago esan

utsaikin, jendiak gerostik Astigarraga-ko markesa deitu izan diela, eta izen orrekin esagutu oi dirala baztar abetan.

Andres Agustin-en semia zan Jose Joakin Orbe Murgia jauna, eta onena berriz Jose Maria Orbe Elio. Jaun au Gipuzkoa-ko gudarien kapitan pizkor eta bulartsua izan zan; prantzetzian berriz Bizkaya-ko gudaritalde baten buru, eta Karlos bostgarrenaren gudan, karlostarretako burusari azkarrenetakobat.

Etzan motelago izan bi karlostarretako gudetan Juan Nepomuceno, aurrero aitatu degunaren semia, eta oraingo *marqués de Valde-Espina*-ren aita.



MURGIA-KO JAUREGI ETA ELIZA

Orra bada Orbe antziñakoen berri apur batzuek. Gaurko markesagatik esango degu: gizon atsegin eta prestuba dala, Euskal-erria-ri bene benerako naitasuna diola, eta euskera ederki dakiela eta baita ere za-lea dala.

Askotan egon da Astigarraga-ko alkate, eta orain Gipuzkoa-ko Diputazio chit goitu-aren buru dago, eta buru izango da Gipuzkoa-ren izenean, Segura-ko errian egin biar diran euskal jai-aldietan.

Euskal-erria-ren onerako izan deyela, gaurko *marqués de Valde-Espina*-ren Diputazio-ko burusaritzza.

EUSKAL-ERRIA